donostiakultura

UDAZKENA
OTOÑO
2017

VICTORIA EUGENIA
Antzokia

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DONOSTIAKO KULTURZALEEN KLUBA
CULTURA MUY A MANO

DESKONTUAK, SARREREN ZOZKETAK, ESKAINTZA ESKLUSIBOAK...
DESCUENTOS, SORTEOS DE ENTRADAS, OFERTAS EXCLUSIVAS...
WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS/BAZKIDEAK

Programazioaren inguruko informazio gehiago Más información sobre la programación:
WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS

donostiakultura

PROGRAMAZIOA
PROGRAMACIÓN
2017
UDAZKENA
OTOÑO

Babeslea Patrocinador:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN KULTURA

URRIA OCTUBRE

Pág. **08** Orr.
Urria **05 - 08 / 12 - 15** Octubre
HITS
TRICICLE

Pág. **32** Orr.
Urria **21** Octubre
DAVID CERVERA
BAXUA
IV. DONOSTIA MUSIKA ZIKLOA
IV CICLO DONOSTIA MUSIKA

Pág. **33** Orr.
Urria **24** Octubre
QUATUOR EUROPA
MUSIKAGILEAK

Pág. **66** Orr.
Urria **28** Octubre - Azaroa **03** Noviembre
FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN 28. ASTEA
28ª SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR

AZAROA NOVIEMBRE

Pág. **66** Orr.
Urria **28** Octubre - Azaroa **03** Noviembre
FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN 28. ASTEA
28ª SEMANA DE CINE FANTÁSTICO Y DE TERROR

Pág. **10** Orr.
Azaroa **04** Noviembre
OBABAKOAK
ARRIAGA ANTZOKIA
& BERNARDO ATXAGA

Pág. **20** Orr.
Azaroa **05** Noviembre
AUKERAN 20 URTE
AUKERAN
DANTZA KONPAINIA

Pág. **34** Orr.
Azaroa **07** Noviembre
BECCA STEVENS
REGINA TOUR

Pág. **36** Orr.
Azaroa **08** Noviembre
ZAÏRE ENSEMBLE
IV. DONOSTIA MUSIKA ZIKLOA
IV CICLO DONOSTIA MUSIKA

Pág. **22** Orr.
Azaroa **10 - 11** Noviembre
DONOSTIA BIHOTZEAN
ALICIA AMATRIAIN

Pág. **12** Orr.
Azaroa **16 -19** Noviembre
PRISCILLA, REINA DEL DESIERTO. EL MUSICAL
SOM PRODUCE

Pág. **38** Orr.
Azaroa **22** Noviembre
CECILIA LAVILLA,
SOPRANOA
LUIS SANTANA,
BARITONOA
ANTONIO LÓPEZ SERRANO, PIANOA
IV. DONOSTIA MUSIKA ZIKLOA
IV CICLO DONOSTIA MUSIKA

Pág. **40** Orr.
Azaroa **23** Noviembre
DESTROYER
KEN

Pág. **42** Orr.
Azaroa **24** Noviembre
RAFA RUEDA
HIRI KRISTALEZKOAK

Pág. **44** Orr.
Azaroa **25** Noviembre
ANNE ETCHEGOYEN
COMPOSTELLE

Pág. **46** Orr.
Azaroa **26** Noviembre
VICENTE AMIGO
MEMORIA DE
LOS SENTIDOS

Pág. **48** Orr.
Azaroa **28** Noviembre
JULIA HOLTER
(SOLO ON GRAND PIANO)
WITH SPECIAL GUEST
TASHI WADA

Pág. **14** Orr.
Azaroa **30** Noviembre
GILTZADUN ETXEA
TANTTAKA TEATROA

ABENDUA DICIEMBRE

Pág. **14** Orr.
Abendua **01** Diciembre
LA CASA DE LA LLAVE
TANTTAKA TEATROA

Pág. **16** Orr.
Abendua **02** Diciembre
CERVANTINA
RON LALÁ

Pág. **24** Orr.
Abendua **03** Diciembre
GERNIKA ILUNETIK ARGI
(80º ANIVERSARIO
DEL BOMBARDEO DE
GERNIKA)
VERDINI DANTZA TALDEA &
LANDARBASO ABESBATZA

Pág. **50** Orr.
Abendua **12** Diciembre
SPIRIT OF NEW ORLEANS
GOSPEL CHOIR
ÉRASE UNA VEZ NUEVA
ORLEANS

Pág. **52** Orr.
Abendua **14** Diciembre
JOSEBA IRAZOKI
& BEÑAT ACHIARY

Pág. **26** Orr.
Abendua **16-17** Diciembre
MARTIN ZALAKAIN
ARGIA

Pág. **54** Orr.
Abendua **19** Diciembre
DÚO BOLÓN –
MALDONADO
IV. DONOSTIA MUSIKA
ZIKLOA
IV CICLO DONOSTIA
MUSIKA

Pág. **29** Orr.
Abendua **23** Diciembre
PINOXXIO
ANANDA DANSA

Pág. **56** Orr.
Abendua **27** Diciembre
LOU TOPET
PETE SEEGER GOGOAN

Pág. **58** Orr.
Abendua **28** Diciembre
AMATEUR
DEBUT!

Pág. **60** Orr.
Abendua **29** Diciembre
MIKEL ERENTXUN
EL HOMBRE SIN SOMBRA

Pág. **62** Orr.
Abendua **30** Diciembre
SKY BEATS PIANO TAPES
FEAT. PAUL SAN MARTÍN

URTARRILA ENERO

Pág. **64** Orr.
Urtarrila **14** Enero
ARTXIPIELAGOA

Antzerkia
Teatro

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Urria **05 - 08 / 12 - 15** Octubre

Hits
Tricicle

05, 06, 12, 13: **20:00 /** 07, 14: **18:30 + 21:00 /** 08, 15: **18:00 /** 09, 10, 11: **Ez dago funtziorik** No hay función
30 € / 25 € / 20 € castellano

Hits ikuskizunean Tricicleren hoberena biltzen da, edo ia hoberena, esketx batzuk alde batera utzi behar izan baitituzte; seguruenik batek baino gehiagok igarriko du esketx horiek ez daudela, nahiz eta orain arte egin duten ikuskizunik luzeena izango den; gagez betetako ehun minutu izango dira, beharbada ez dira azalduko taldearen gag guztiak, baina azalduko diren gag guztiak onak izango dira.

Hits –Humore Adimendunaren, Bizkorraren eta Harrigarriaren akronimoa gaztelaniaz– ikuskizunean apur bat murriztutako hamabi esketx biltzen dira eta ikuskizunaren amaieran laburpen zabal bat egiten da ikuslea itotzeko zorian uzten duten gag labur-laburrekin. Ia gag guztiak estreinatu ziren bezala azaltzen dira; izan ere, alde batera utzi dituzten edo aldatu diren alderdi teknologikoak izan ezik, denboraren iraganak ez die batere eragin.

Hits contiene lo mejor de Tricicle, o casi, porque han tenido que dejar a un lado sketches que seguramente alguien echará en falta, a pesar de que será el más largo de los espectáculos que han hecho; cien minutos repletos de gags en los que quizá no estén todos los que son, pero si que son todos los que están.

Hits –acrónimo de Humor Inteligente Trepidante y Sorprendente- reúne doce sketches mínimamente reducidos y un amplio resumen que cierra el espectáculo, compuesto de gags cortísimos que dejan al espectador al borde del colapso respiratorio. Casi todos aparecen tal y como fueron estrenados, porque salvo aspectos tenológicos que han obviado o variado, el paso del tiempo no les ha afectado en absoluto.



© David Ruano

Azaroa **04** Noviembre

Obabakoak

Arriaga Antzokia & Bernardo Atxaga

20:00
20 € / 15 € / 8 €
euskara



Obabakoak irudimenezko lurralde bat da, Macondo, Yoknapatawpha edo Region diren bezala, non hainbat historia gertatzen baitira, hala nola geografia-irakaslearena, zeinak gutunezko maitasun-gertaera bat gogoratzen baitu; bakardadeari aurre egin behar dion irakaslearena; kanonigo batek basoan bizi den haur batekin duen harremanarena; edo eskola-garaiko argazki zahar bat handitzen hasi eta xehetasun izugarri bat aurkitzen duen idazlearena.

Calixto Bieitoren egokitzapen honetan, giza paisaien ikusmiran jartzen gaituzte pertsonaiek, beren maitasun, desira, oroitzapen, beldur eta zalantzak agertuz. Haurtzaroko mundu urrun eta hasiera-hasierako hartan gertatzen diren historiak, non Freuden izena ez baitzen sartzen gure hiztegian. Oroimenaren gaueko fantasia, ikuskari, irudien unibertso bat, gure baitako bazter lanbrotuetan ezkutatzen dena.

Obabakoak poema sinfoniko bat da.

Obabakoak es un territorio imaginario emparentado con Macondo, Yoknapatawpha, o Región, donde ocurren historias de personajes como el profesor de geografía que recuerda su historia de amor epistolar, la joven maestra que tiene que aprender a combatir la soledad, la relación de un canónigo con un niño perdido en el bosque, o el escritor que descubre un detalle asombroso en la ampliación de una vieja foto de la escuela…

En esta adaptación libre de **Calixto Bieito**, los personajes aparecen como paisajes humanos llenos de amor, de deseo, recuerdos, miedos e incertidumbres. Historias que transcurren en aquel lejano y primitivo mundo de la infancia donde el nombre de Freud no pertenecía a nuestro vocabulario. Un universo de fantasías, de visiones, de imágenes en la noche de la memoria y ocultos en los rincones más recónditos de nuestro ser.

Obabakoak es un poema sinfónico.

Azaroa **16 - 19** Noviembre

Priscilla, reina del desierto. El Musical

Som Produce

16: **20:00**
17, 18: **18:00 + 22:00**
19: **17:00 + 21:00**

16, 19 **(21:00): 49 €, 44 €, 38 €**
17, 18, 19 **(17:00): 55 €, 50 €, 42 €**

castellano

Priscilla musikala Oscar bat irabazi zuen filmean oinarrituta dago eta nazioarteko musikalik ikusgarri eta dibertigarriena da. Musikalari izena ematen dion autobusean Australiako basamortua zeharkatzen duten hiru artista dragen abenturak kontatzen ditu; bidaia horren soinu-banda *I Will Survive* abestiak eta historia osoan gehien dantzatu diren abestiek osatzen dute.

Londresen estreinatu zenean erabili zen jatorrizko eszenaratze aparta, agertokiko 40 artistak barne, Oscar batekin saritu zuten arropa joria, musikalari izena ematen dion autobus ikusgarria eta historia osoan gehien dantzatu diren abesti arrakastatsuenak biltzen dituen soinu-banda uztartuta, *Priscilla* musikalik ikusgarri eta dibertigarriena dela esan daiteke.

Basado en la película ganadora de un Oscar, *Priscilla* es el musical internacional más espectacular y divertido. Narra las aventuras de tres artistas drag que atraviesan el desierto australiano a bordo del autobús que da nombre al musical, en un viaje cuya banda sonora está formada por *I Will Survive* y las canciones más bailadas de la historia.

Con la extraordinaria puesta en escena original con la que fue estrenado en Londres, incluidos 40 artistas en escena, el exuberante vestuario galardonado con un Oscar, el espectacular autobús que da nombre al musical y una banda sonora que reúne los éxitos más bailados de la historia, *Priscilla* es el musical más espectacular y divertido.

Azaroa **30** Noviembre - Abendua **01** Diciembre

Giltzadun etxea
La casa de la llave
Tanttaka Teatroa

20:00
18 € / 15 € / 10 €
30 euskara
01 castellano

Sorkuntza eszeniko ezohiko bat dugu hemen, bertan, hiru emakumezko aktore -**Ainhoa Aierbe**, **Mireia Gabilondo**, **Vito Rogado**-, gizarte langile talde baten errraietan sartuko dira. Egunerokotasuna islatzen duten momentuen bitartez, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako bi egoitzatako -larrialdi egoeretarako etxe bat eta abegi etxe bat- bizitza biluztuko digute.

Poema bilduma errukigabe honen egile den **Mada Alderete**k zazpi urtez egin zuen lan horrelako etxe batean hezitzaile gisa.

Ainara LeGardon sortzaile eta interprete iradokitzaile eta inkonformistak eginiko zuzeneko soinu banda landuak eta **Maialen Sarasua**ren irudiek diskordantziaz beteriko ikuskizun bat osatzen lagunduko dute. Egilearen hitzetan pertsonaientzako erabilitako izen bereziak izango dira, erarik gordinenean gerturatuko zaigun egia penagarri bezain ezezagun honetako, gezur bakarrak.

Una insólita creación escénica donde tres actrices -**Ainhoa Aierbe**, **Mireia Gabilondo**, **Vito Rogado**-, en la piel y las entrañas de trabajadoras sociales, desnudan en ¨instantáneas de vida¨ el día a día de dos refugios -una casa de emergencia y una casa de acogida- para mujeres que eran víctimas de la violencia donde, **Mada Alderete**, la autora de este implacable poemario, trabajó durante siete años como educadora.

La elaborada banda sonora, en directo, de una creadora e intérprete sugerente e inconformista como es **Ainara LeGardon**, y las precisas -y preciosas- imágenes de **Maialen Sarasua** terminan de invocar un espectáculo desacorde que, sin condescendencia alguna, nos asoma, para mejor comprenderla y (re)interpretarla, a una penosa y desconocida verdad, en la que como dice su autora, los nombres propios que utiliza, son la única mentira.

Abendua **02** Diciembre

Cervantina
Ron Lalá

© David Ruiz

21:00 **20 € / 15 € / 8 €** castellano

Ron Lalák espainiar letren autorerik handienaren unibertsora egindako beste hurbilpen bat da *Cervantina*. Askotariko testuak: bertsoak, bertsioak eta dibertsioak, literatura unibertsaleko jenio handienetako baten inguruan. Omenaldi bat eta *Kixotea*ren autorearen arte zoli, ludiko, irri-eragile eta sakonki gizatiarra topatzeko aukera bat. Cervantes onena, betierekoa eta hurbila ospatzeko aukera bat, **Ron Lalá**ren marka paregabearen ildotik, Compañía Nacional de Teatro Clásicorekin batera. **2017ko Max Saria Musika Ikuskizun Onenari**, eta finalista Egokitzapen Onenari eta Taldeko Aktore Onenari emandako sarietan.

Cervantina es una nueva aproximación de Ron Lalá al universo creativo del mayor autor de de la literatura española. Textos diversos, versos, versiones y diversiones en torno a uno de los genios indiscutibles de la literatura universal. Un homenaje y un encuentro con el arte lúcido, lúdico, hilarante y profundamente humano del autor de *El Quijote…* entre otras obras maestras que urge redescubrir. Una celebración del mejor Cervantes, eterno y cercano, con sabor al inconfundible sello de Ron Lalá, junto a la Compañía Nacional de Teatro Clásico. **Premio Max 2017 al Mejor Espectáculo Musical**, y Finalista a la Mejor Adaptación y al Mejor Actor de Reparto.

Dantza



Azaroa **05** Noviembre

Aukeran 20 urte
Aukeran Dantza Konpainia

19:00 **20 € / 15 € / 8 €**

Aukeran Dantza Konpainiak bere 20. urteurrena ospatuko du ikuskizun berri bat prestatuz. Horretan, begirada berri bat emango die bere azken obretako pieza ezagunenei. **Ainhoa Aierbe** eta **Mixel Ducau** eszena eta musika zuzendariekin batera, hurrenez hurren, ikusleak harrituko dituen proposamen eszeniko dotore eta zaindu hau sustatu du.

Aukeran DK Donostian finkatutako konpainia bat da, 1997an Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografoak sortua. Harrezkero, ibilbide luze eta oparoa garatu du. Bere koreografiak, dantza tradizionalak eta garaikideak nahasten dituelako nabarmentzen dira, dantza eta musika tradizionalen erritmoak eta arauak hautsiz, aldatuz, motelduz eta desegituratuz.

Aukeran Dantza Konpainia celebra su 20º con una cuidada y elegante propuesta escénica que sorprenderá al público, una nueva mirada a piezas emblemáticas de sus últimas obras, con la colaboración de Ainhoa Aierbe y Mixel Ducau, en la dirección éscenica y musical, respectivamente.

Aukeran DK es una compañía donostiarra creada por el bailarin y coreógrafo Edu Muruamendiaraz en 1997, con una fructifera trayectoria. Su labor coreográfica destaca por el mestizaje entre la danza tradicional y contemporánea, rompiendo, cambiando, ralentizando o desestructurando el ritmo y las reglas de la danza y la música tradicional.

Azaroa **10 - 11** Noviembre

Donostia bihotzean Alicia Amatriain

© Carlos Quezada

20:00 36 € / 25 € / 15€

Alicia Amatriain donostiar dantzari handia etxera itzuli da, denboraldi ikusgarria egin ondoren, nazioartean sari ospetsuak lortuta. Denetan handiena, Moskuko Bolshoi Antzokian lortutakoa, Benois de la Danse gutiziatua, balleteko Oscartzat jotzen dena. Victoria Eugenia Antzokian egingo duen bigarren gala handirako, Amatriainek *tour de force* bihurri bat proposatzen du, dantzari gutxirenesku dagoena, bere interpretazio-ahalen askotarikoa agerian jartzeko, ballet klasikoan zein garaikidean. Abagune paregabea inoizko donostiar dantzaririk txalotuena ikusiz gozatzeko, neurri-neurrira osatutako programa batean, non bere onena emango baitu, Donostia bihotz-bihotzean baitarama beti.

La gran bailarina donostiarra Alicia Amatriain vuelve a casa tras una espectacular temporada plagada de prestigiosos premios internacionales, cuyo punto culminante fue recibir el codiciado Premio Benois de la Danse –considerado el Óscar del ballet- en el Teatro Bolshoi de Moscú. Para su segunda gran gala en el Teatro Victoria Eugenia, Amatriain propone un verdadero *tour de force* al alcance de pocas bailarinas, donde mostrará la versatilidad de sus registros interpretativos: desde el clásico hasta el contemporáneo. Una ocasión única para deleitarse con la bailarina donostiarra más aclamada de todos los tiempos en un programa hecho a medida, que mostrará lo mejor de la artista en cuyo corazón anida siempre el recuerdo a su añorada Donostia.

Abendua **03** Diciembre

Gernika - Ilunetik argi
80º aniversario del bombardeo de Gernika

Verdini Dantza Taldea
& Landarbaso Abesbatza

20:00
12 € / 9 € / 7 €

“Bizia, horrelakoxea da Gernikako herria, herri bizi eta argia; eta bertan bizi da Pedro gaztea gurasoekin, bere anai-arrebekin eta etxeko astoarekin. Garaiko beste neska-mutiko alai askorena bezala, Pedroren kezka nagusienak txikiak dira, azken komikia nola lortu edo eskolatik noizbehinka kiker egitea, baina… gerra hotsak herrira hurbiltzearekin batera hala beharrez egin beharko du bat-batean heldu eta gris”.

Azoka egun hartan hegazkin ilunek Gernikako zerua beltzatzean, herriaren bizitza hankaz gora jarriko da. Bonbak, hotsak, oihuak, hildakoak, beldurra nagusi… eta herriaren iluntasuna hautsiz sugar gaiztoak. Pedroren familian ere argi bat itzali egingo da gerraren ondorioz, baina gurasoek beti erakutsi bezala, bizi nahiaren sugarrak gorrotoarenak baino indar handiagoa izan dezake eta ilunetik argia ateratzen lagundu behar digu.

“Vivo y con mucha luz, así es el pueblo de Gernika, donde vive el joven Pedro con sus padres, hermanos y con su fiel burro. Al igual que las de muchos otros chavales de la época, las preocupaciones de Pedro son pequeñas como intentar conseguir el último número de su cómic favorito o librarse de vez en cuando del colegio… pero con la llegada de los sonidos de guerra tendrá que volverse adulto y gris de golpe”.

Cuando aquel día de feria los oscuros aviones ennegrecen el cielo de Gernika, la vida dará un gran vuelco. Bombas, ruidos, gritos, muertos… el miedo se impone y rompiendo la oscuridad del pueblo, sólo voraces llamas. En la familia de Pedro también se apagará una luz debido a la guerra, pero tal y como siempre le enseñaron sus padres, la llama de las ganas de vivir puede ser más grande que la del odio, y debe ayudarnos a sacar algo de luz de toda oscuridad.

Abendua **16 - 17** Diciembre

Martin Zalakain
Argia

16: **20:00**; 17: **19:30** **20 € / 15 € / 8 €** euskara

Martin Zalakain Urbia izeneko fikziozko herriko gazte euskalduna da. Mutil bihurria da. Ama hil ondoren, Migel Tellagorri zahar ostatuzaleak hezitzen du. Karlos Ohando herriko jauntxoa gorrotatzen du. Ohando Martinen arrebaren atzetik dabil eta honek engainatu ez dezan, Martinek bere laguna den Bautista Urbiderekin ezkontzea lortzen du. Senar-emazte berriak Zaro izeneko Iparraldeko udalerri batera bizitzera joango dira, baina gerora Bautista Martinekin batera abenturetan murgilduko dira. Abenturak Hirugarren Gerra Karlistan girotuta daude.

Harkaitz Canok idatzi eta **Juan Antonio Urbeltz** eta **Ander Lipus**ek zuzentzen dute antzerkia eta dantza uztartzen dituen lan hau.

Martin Zalakain es un joven vasco de un pueblo ficticio llamado Urbia, un chico que no para quieto y que, tras morir su madre, es educado por el ventero Miguel Tellagorri. Odia a Carlos Ohando, el cacique del pueblo. A su vez, Ohando corteja a la hermana de Martin, quien consigue que la chica se case con su amigo Bautista Urbide. Los recién casados se trasladan a vivir a Zaro, un pueblo de Iparralde, pero más tarde Bautista se embarcará en diversas aventuras junto a Martin. Aventuras con el trasfondo de la Tercera Guerra Carlista.

Una obra escrita por **Harkaitz Cano** y dirigida por **Juan Antonio Urbeltz** y **Ander Lipus** que fusiona danza y teatro.

Abendua **23** Diciembre

Pinoxxio
Ananda Dansa

17:30 **9€ / 7 € / 5 €** Adina Edad: + 5

Pinoxxio gaur egungo ikuskizun bat da, literatura unibertsaleko klasiko batean inspiratua. Era guztietako ikusleentzako ikuskizuna, **2006an Espainiako Dantza Sari Nazionala** irabazitako konpainia honek berez duen tonu poetiko eta jostariaren ildotik betiere. Ikuskizunean, Gepetto aitaren lehia ageri zaigu, semea hezteko duen nahiak tupust egiten baitu Pinoxxiok bere bulkadei jarraitzeko duen gogoarekin. Ananda Dansa estetika berezi batetik abiatzen da, ipuinaren ikonografia klasikotik urrun, orainetik hurbil eta geroari begira.

Ikuskizun honek **6 Max Sari irabazi zituen 2016an**: Familientzako Ikuskizunik Onenari, Musika-konposizio Onenari, Jantzi Onenei, Emakume Dantzari Nagusi Onenari, Gizonezko Dantzari Nagusi Onenari eta Dantza-talde Onenari.

Pinoxxio es un espectáculo contemporáneo inspirado en un clásico de la literatura universal. Un espectáculo para todos los públicos que no abandona el tono poético y divertido que marca el sello de esta compañía, **Premio Nacional de Danza 2006**. Un espectáculo que trata de cómo las ansias de papá Gepetto por educar a su hijo son inversamente proporcionales a las ganas del hijo Pinoxxio por seguir sus impulsos. Ananda Dansa parte de una estética que se aleja de la inconografía clásica del cuento y lo acerca hacia el presente y lo proyecta hacia el futuro.

Espectáculo **ganador de 6 Premios Max en 2016** al mejor Espectáculo Familiar, Mejor Composición Musical, Mejor Vestuario, Mejor Bailarina Principal, Mejor Bailarín Principal y Mejor Elenco de Danza.

Musika



Urria **21** Octubre

David Cervera, baxua

IV. Donostia Musika Zikloa

IV Ciclo Donostia Musika

Club, 20:00 **10 €**

Verdi, Rossini, Puccini eta **Sorozaba**l-en lanak
Obras de **Verdi, Rossini, Puccini** y **Sorozabal**

Kolaboratzailea
En colaboración con:
Donostia Musika

David Cervera valentziarrak tronboi-espezialitateko goi-mailako musika-ikasketak amaitu eta kantu ikasketak ere egin zituen Madrilgo Goi Mailako Musika Eskolan.

Bakarlari gisa, zenbait operatan aritu da, hala nola *Pinocchio, Turandot, Lucia de Lammermoor, La Traviata, Die Zauberflöte* eta *Don Giovanni*. 2013an, *Rigolettorekin* egin zuen debuta, Bariko Petruzzelli antzokian (Italia), eta 2016an *La Bohème* kantatu zuen Oviedoko Campoamor antzokian.

2010ean, saria irabazi zuen Colmenar Viejoko Nazioarteko Kantu Lehiaketan.

El valenciano David Cervera finalizó los estudios superiores de música en la especialidad de trombón. También realizó estudios de canto en la Escuela Superior de Música de Madrid.

Como solista ha interpretado diversas óperas como *Pinocchio, Turandot, Lucia de Lammermoor, La Traviata, Die Zauberflöte y Don Giovanni*. En 2013 debutó en el Teatro Petruzzelli de Bari (Italia) con *Rigoletto* y en 2016 en el Teatro Campoamor de Oviedo con *La Bohème*.

Fué premiado en el Concurso Internacional de Canto de Colmenar Viejo en 2010.

Urria **24** Octubre

Quatuor Europa
Musikagileak

VIII. Musika Garaikidearen Zirkuitua
VIII Circuito de Música Contemporánea

Club, 20:00 **3 €**

Biolina:
Cristian Ifrim
Biolina:
Anna Radomska
Biola:
Jerzy Wojtysiak
Biolontxeloa:
Javier Navascués

Kolaboratzailea
En colaboración con:
Musikagileak

Quatuor Europa hari-laukoteak Musikagileakeko hiru konpositoreren lanak eskainiko ditu kontzertu honetan; Teresa Catalán, María Luisa Ozaita eta Beatriz Arzamendiren *Cuarteto 2017ren* erabateko estreinaldia. Kontzertua Ruth Crawford-Seeger musikagile estatubatuarraren *Hari-Laukotea* interpretatuz amaituko da.

El cuarteto de cuerda Quatuor Europa, ofrecerá un programa integrado por obras de compositoras de Musikagileak, como Teresa Catalán, María Luisa Ozaita o el estreno absoluto de *Cuarteto 2017* de Beatriz Arzamendi. El concierto finalizará con la interpretación del *Cuarteto de cuerd*a de la compositora estadounidense Ruth Crawford-Seeger.

Azaroa **07** Noviembre

Becca Stevens
Regina Tour

Ahotsa, gitarra, txarangoa eta ukelelea
Voz, guitarra, charango y ukelele:
Becca Stevens

Perkusioa eta ahotsa
Percusión y voz:
Jordan Perlson

Pianoa Piano:
Oli Rockberger

20:00 15 €

Becca Stevens Ipar Carolinako kantari bat da, egun New Yorken bizi bada ere. Snarky Puppi taldearekin jardun ohi du. *Regina* diskoa, kaleratu berria, omenaldi bat da, literaturan, historian, elezaharretan eta Becca Stevensen beraren bizitzan garrantzia izan duten emakumeei eta beste pertsona batzuei egina. Bere mundua inguratzen duen natura benetako eta jainkozkoan inspiraturiko kantek osatzen dute. Beccak musa edo alter ego gisa darabil *Regina*, modu berri batez idazteko, beldurrik gabe nahasiz popa, folka, rocka, jazz funka eta beste hainbat genero. Album honetan, protagonismo handiagoa izan du, eta norabide berri bati ekin dio bere musika-ibilbidea sendotzeko asmo argiz.

Becca Stevens es una cantante de Carolina del Norte, establecida actualmente en Nueva York. Colabora habitualmente con el grupo Snarky Puppi. Su disco *Regina*, recien editado, es un homenaje a las mujeres y figuras importantes, tanto en la literatura, historia y leyenda, así como en la vida personal de Becca Stevens, canciones inspiradas en la naturaleza real y divina que rodea su mundo. Becca utiliza *Regina* como una musa o un alter ego para escribir de una manera nueva, mezclando sin miedo, géneros como pop, folk, rock, jazz funk y mucho más. Un álbum donde ella cobra más protagonismo y marca una clara nueva dirección en la consolidación de su carrera.

Azaroa **08** Noviembre

Zaïre Ensemble

IV. Donostia Musika Zikloa

IV Ciclo Donostia Musika

Purcell, Boccherini, C.P.E. Bach, Mozart eta **Haydn**-en lanak

Obras de **Purcell, Boccherini, C.P.E. Bach, Mozart** y **Haydn**

Biolina:
Sergio Suárez
Biolina:
Saaya Ikenoya
Biola:
Natalia Duarte
Biolontxeloa:
Alessandra Giovannoli
Kontrabaxua:
Joan Serinyà

Kolaboratzailea
En colaboración con:
Donostia Musika

Club, 20:00 10 €

Zaïre proiektua 2016an jaio zen Bartzelonan. Musika-talde hau interpretazio historizistan espezializatua da eta zenbait naziotako musikari gazteek osatzen dute, Europako ikastegi ospetsuenetan prestatuak denak ere.

Aro Klasikoan konposatutako musikaren alderako zaletasunak bultzatzen du Zaïreren lana, eta horrez gainera ganbera-musikako errepertorioari ekarpen handiak egindako konpositore askoren obra berreskuratzen eta birbalioztatzen saiatzen da.

Gaztetasunaren eta arte-esperientziaren arteko konbinazio ezin egokiagoa da Zaïre.

Zaïre es un proyecto que nace el año 2016 en Barcelona, una agrupación musical especializada en interpretación historicista, compuesta por jóvenes músicos de diferentes nacionalidades formados en los centros más prestigiosos de Europa.

El amor por la música compuesta durante el Período Clásico impulsa el trabajo de Zaïre que busca, además, rescatar y revalorizar la obra de muchos compositores que hicieron grandes aportaciones al repertorio de música de cámara.

Zaïre es la combinación perfecta de juventud y experiencia artística.

Azaroa **22** Noviembre

Cecilia Lavilla
Sopranoa

Luis Santana
Baritonoa

Antonio López Serrano
Pianoa

IV. Donostia Musika Zikloa
IV Ciclo Donostia Musika

Rodríguez de Ledesma, Sor, Rossini, Donizzeti, Mendelsshon, Gounod eta **Saint-Saëns**-en lanak
Obras de **Rodríguez de Ledesma, Sor, Rossini, Donizzeti, Mendelsshon, Gounod** y **Saint-Saëns**

Kolaboratzailea En colaboración con:
Donostia Musika

Club, 20:00 10 €

Cecilia Lavilla madrildarrak askotan hartu du parte Espainiako zenbait antzokiren opera-produkzioetan, eta batez ere oratorioak interpretatu izan ditu zenbait orkestrarekin. Grabazio hauek ditu, besteak beste: Victor Garbajoren lanak, Pergolesiren *Stabat Mater, El Maestro de Baile y otras Tonadillas*.

Luis Santana baritonoak berriz, estatu espainiarreko antzoki garrantzitsuenetan jardun du, eta Erroma, Paris, Milan, Napoli, Budapest, Toulon, Bucarest eta beste hiri batzuetan. Bizeten *Carmen* operaren ia berrogeita hamar emanaldi egin ditu Espainiako ia hiri guztietan. Aditua da Rossiniren errepertorioan eta espainiar kontzertu-kantetan.

La madrileña Cecilia Lavilla participa asiduamente en producciones de ópera de diferentes teatros españoles, y colabora con orquestas interpretando especialmente oratorios. Entre sus grabaciones destacan: Obras de Víctor Carbajo, el *Stabat Mater* de Pergolesi, *El Maestro de Baile* y *otras Tonadillas*.

El barítono Luis Santana por su parte ha actuado en los teatros más importantes del Estado y en ciudades como Roma, París, Milán, Nápoles, Budapest, Toulon, Bucarest... Ha realizado casi cincuenta representaciones de la ópera *Carmen* de Bizet en casi todas las ciudades españolas. Es experto en el repertorio rossiniano y en canción de concierto española.

Azaroa **23** Noviembre

Destroyer
ken

20:00 **15 €**

Destroyer-en atzean Dan Bejar dago, Vancouver-ko kanadiar bat. Lotsatu gabe, indie rock-eko David Bowiea dela esan daiteke. **Dan Bejar** gaur egungo konpositore distiratsuenetako bat da. Edertasunaren bila etengabe, Destroyer arrakasta bat beste baten ondotik lortuz ibili da.

Ken, lan irten berria, ibilbideko hamabigarren albuma da. Dan Bejarek Margaret Tatcher-en azken urteetan bilatu du inspirazioa. Urte haietan, "musika gaixotasun bat bezala" etorri zitzaion. *Ken* ez da grabatu banda baten diskoa balitz bezala, baina taldeko kide guztiak ageri dira bertan.

Tras Destroyer está **Dan Bejar**, canadiense de Vancouver. Alguien, a quien se puede llamar, sin ruborizarse, el David Bowie del indie rock. Dan Bejar es uno de los más brillantes compositores actuales. La constante búsqueda de la belleza, ha llevado a Destroyer a la consecución de un éxito tras otro.

Para su recien publicado trabajo, *ken*, duodécimo álbum de estudio de su carrera, Dan Bejar ha buscado inspiración en los últimos años de la era de Margaret Thatcher, años en los que según Bejar "la música me vino a la cabeza como una enfermedad". *Ken* no ha sido grabado como un disco de banda, si bien todos los componentes de la formación aparecen en él.

Azaroa **24** Noviembre

Rafa Rueda
Hiri kristalezkoak

Club, 20:00 **8 €**

Hogei urteko ibilbide sendoa jorratu du Rafa Ruedak Euskal Herrian sortu diren musika proiekturik garrantzitsuenetan parte ezinbestekoa izanik bere talentuari esker.

Rafa Ruedaren lan berri honek arreta piztuko du, zalantzarik gabe, Rafaren kantuen eta moldaketen kalitate mailagatik ez ezik, baita abestiek hartzen duten maila poetikoarengatik ere.

Son ya veinte años de sólida trayectoria musical los que acuña el músico Rafa Rueda, tiempo en el que ha participado en numerosos proyectos musicales de gran envergadura, gracias a su talento y especial gusto.

Este nuevo trabajo de Rafa Rueda volverá a apasionarnos, no sólo por la alta calidad de las canciones y los arreglos, si no también, y sobre todo, por el enorme carácter poético que ha sabido plasmar en sus nuevos temas.

© Galder Izagirre

Azaroa **25** Noviembre

Anne Etchegoyen
Compostelle

20:00 15 €

Compostelle musika-proiektu humanista, bateragile eta mundura irekia da.

Anne Etchegoyenek Santiago bideari ekin zion iazko irailaren 21ean, Donapaleuko etxetik Santiago Konpostelakoraino. Bilaketa espiritualean barrendu zen, eta inspirazio-iturri horretatik sortu da album berri hau.

Proiektu honetan, Aukeran dantza-taldea, Burlatako Paz de Ziganda ikastolako neska-abesbatza, hiru gitarra-jotzaile eta txalapartari bat izan ditu lagun.

Compostelle es un proyecto musical humanista, unificador y abierto al mundo.

Anne Etchegoyen emprendió el Camino de Santiago el 21 de septiembre del pasado año, desde su casa familiar de Donapaleu hasta Santiago de Compostela.

Anne decidió realizar este peregrinaje para lanzarse a la búsqueda espiritual, fuente de inspiración, de la que nace este nuevo álbum.

Le acompañan en este evento, el grupo de danza Aukeran, el coro de niñas de la ikastola Paz de Ziganda de Burlada, 3 guitarristas y un txalapartari.

Azaroa **26** Noviembre

Vicente Amigo
Memoria de los sentidos

19:00 20 €

Vicente Amigo erroetara itzuli da *Memoria de los sentidos* lan berriarekin.

Flamenkoa da artista honen sorlekua, lurralde mitiko horretatik sortzen du bere artea, zeinak fusiorako arrazoiak eman baitizkio maiz; bai eta maisutasun handiz jardun ere: fusioa jazzarekin, poparekin, musika globalarekin... Azken lanean, ordea, bestela aritu da: albumari flamenkoa dario, puristen gustuko flamenkoa, jatorrizko flamenkoa. Abagune paregabea arte hori huts-hutsik dastatzeko.

Vicente Amigo vuelve a las raíces con su nuevo trabajo *Memoria de los sentidos.*

El flamenco es el lugar al que pertenece el artista, el terreno mítico del que surge su arte, ese que con tanta maestría y en tantas ocasiones le ha dado argumentos para la fusión: con el jazz, con el pop, con la música global... No es el caso de su último trabajo, *Memoria de los sentidos:* un álbum que rezuma el flamenco del que gustan los puristas, el de los auténticos orígenes. Una ocasión única para disfrutar de su arte en estado puro.

Azaroa **28** Noviembre

Julia Holter
(solo on grand piano)
with special guest
Tashi Wada

20:00 **18 €**

Julia Holter nahasketa delizios eta berritzaile bat da, Elton John eta Marlene Dietrich bat eginik. Konpositore bikaina, ahots misteriotsu eta paregabekoa, hamarkada honetako indie musikari ospetsuenetako bat. *In The Same Room* du Holterrek azken lana, aurtengo martxoan kaleratua.

Oraingoan hari lagun egiten, Tashi Wada estatubatuar musikari esperimentala, zeinaren konposizioak itxura sinpleko egiturak izaten baitira, baina afinazio-sistema sotilki kalkulatuak ezkutatzen dituztenak, pertzepzio-efektu pentsaezinak lortzeko.

Julia Holter resulta ser una deliciosa e inventiva mezcla entre Elton John y Marlene Dietrich. Extraordinaria compositora, con una deliciosa voz misteriosa y única, es una de las figuras de mayor prestigio indie de esta década.

Tras la publicación este mismo año de *In The Same Room*, Holter estará acompañada en esta gira por el músico experiemental estadounidense Tashi Wada, cuyas composiciones suelen utilizar estructuras de apariencia sencilla, que esconden sistemas de afinación sutílmente calibrados para generar inesperados efectos de percepción.

Abendua **12** Diciembre

Spirit of New Orleans Gospel Choir
Érase una vez Nueva Orleans

Artista gonbidatuak Artistas invitados: **Charmaine Neville & Amasa Miller**
Musika-zuzendaria Director musical: **Albert Mickel**

20:00 **20 €**

Spirit of New Orleans Gospel Project taldea 9th Ward-ekin lotuta dago, hots, Katrina urakanak gogorren zigortutako auzoarekin. *Érase una vez Nueva Orleans* lanean, omenaldia egiten dio airean beti musika izan duen hiri horri.

Hiriaren musika-tradizioaren erakusgarri bizi-bizia da *Érase una vez Nueva Orleans*, eta joan-etorriko bidaia bat Congo Squareko jatorritik gaur egungo desfileetara, hip-hop erritmoak eta mundu osoan kantatu izan diren aireak lagun dituela.

Spirit of New Orleans Gospel Project, formación vinculada al 9th Ward, el barrio más castigado por el huracán Katrina, homenajea en *Érase una vez Nueva Orleans*, a la ciudad donde siempre hay música en el aire.

Muestra vibrante de la tradición musical de la ciudad, *Érase una vez Nueva Orleans* es un viaje de ida y vuelta desde los orígenes en Congo Square, al presente de los desfiles con ritmos de hip hop y citas especiales para las melodías que se han tarareado en todo el mundo.

Abendua **14** Diciembre

Joseba Irazoki & Beñat Achiary

Club, 20:00 8 €

Joseba Irazoki eta Beñat Achiary Euskal Herriko musikaririk karismatikoenetakoak dira, zalantzarik gabe.

Herri tradizioa, ikuspegi unibertsala, eta garaikidetasuna dira lan honen ezaugarririk nagusienak. Bakoitza bere munduan nortasun handiko musikaria izanik, biak elkarturik sekulako trasmisio ahala lortzen dute, belaunaldien gainetik iraganik, aspaldiko kantuak garai berrietara modu esanguratsuan egokitzen dituztenean.

Dos genios en estado puro. Este nuevo y sorprendente trabajo llevado a cabo por Joseba Irazoki y Beñat Achiary, dos de los músicos más carismáticos de nuestro país, se basa en el punto de vista contemporáneo y transgresor de la tradición popular, que dota a ésta de un carácter universal.

A pesar de pertenecer a distintas generaciones, y estar catalogados en diferentes estilos musicales, unidos regeneran la idea de la trasmisión de un modo muy significativo.

© Juan G. Andrés

Abendua **19** Diciembre

Dúo Bolón - Maldonado

IV. Donostia Musika Zikloa

IV Ciclo Donostia Musika

Webern, Beethoven eta **Shostakovich**-en lanak
Obras de **Webern, Beethoven** y **Shostakovich**

Biolontxeloa:
Salvador Bolón
Pianoa:
Aída Maldonado

Kolaboratzailea
En colaboración con:
Donostia Musika

Club, 20:00 10 €

Bolón - Maldonado bikotea 2013an eratu zen, Donostian.

Salvador Bolónek eta Aída Maldonadok kalifikazio onenekin burutu zituzten graduko eta masterreko ikasketak, lehenik Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian (Musikene) eta ondoren, Suitzan eta Alemanian.

Bi taldekideak Trío San Sebastián-eko kide dira, halaber, 2010etik, eta horrek interprete gazteen ziklo garrantzitsuenetan parte hartzera eraman ditu Espainian zehar.

El dúo Bolón - Maldonado se forma en el año 2013 en San Sebastián.

Salvador Bolón y Aída Maldonado realizan sus estudios de grado y máster con las más altas calificaciones, primero en el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene) y a continuación, en Suiza y Alemania.

A su vez, ambos miembros forman parte desde 2010 del Trío San Sebastián, lo que les lleva a actuar en los principales ciclos de jóvenes intérpretes a nivel nacional.

Abendua **27** Diciembre

Lou Topet
Pete Seeger gogoan

Ahotsa, gitarra akustikoa, armonika:
Oier Aranzabal

Gitarra elektrikoa,ahotsa:
Rafa Rueda

Hammonda, teklatua:
Joserra Senperena

Baxua:
Oihan Larrañaga

Bateria:
Ander Zulaika

Musikari gonbidatua Artista invitado
Joseba Irazoki, banjoa

20:00 12 €

Abesti Bat Gutxiago elkarlanarekin estatu batuarren hamaika abesti itzuli eta moldatu ostean, hariari tira eta segida gisa Lou Topet bandak, Harkaitz Cano idazleak eta euskal musikako lagun ezagunek Seeger berpiztuko dute bere abestien moldaketen bitartez.

Musikari hilezkorrik baldin bada, horixe da Pete Seeger. AEBtako ezker mugimenduaren abangoardia musikala, memorian iltzatuta ditugu Lincoln batailoiari abestutako bertsoak eta 1978an Euskal Herrira egin zuen bidaia. Oraingoan bidaia entzuleari proposatzen dio Lou Topetek Seegerren abestietan zehar.

Tras haber traducido y adaptado un gran número de canciones norteamericanas en su trabajo en común *Abesti Bat Gutxiago*, la banda Lou Topet, junto al escritor Harkaitz Cano y figuras conocidas de la música vasca, ha continuado por el mismo camino, y se ha propuesto resucitar a Seeger mediante la adaptación de diversas canciones suyas.

Si existe algún músico inmortal ese es Pete Seeger, vanguardia musical de la izquierda en Estados Unidos. Guardamos en la memoria los versos dedicados al batallón Lincoln y la visita que hizo en 1978 a Euskal Herria. En esta ocasión, Lou Topet propone un viaje a través de las canciones de Seeger.

Abendua **28** Diciembre

Amateur
Debut!

20:00 **20 €**

Amateur du izena **Mikel Aguirre, Chelis Lanzagorta** eta **Iñaki de Lucas**en musika-abentura berri honek. Hirurak ere, La Buena Vida talde desagertuko kide ohiak.

Talde hartako planteamenduetatik abiatuta -konposizio finak *vintage* ukituekin, klasikoei egindako keinuak, orkestra-moldaketak eta gaztelaniazko testuak-, Amateurek ñabardura eta giro berriak dakartza *Debut!* osatzen duten kantuetara. **Diego Vasallo**k, **Irantzu Valencia**k, **Jaime Stinus**ek, **Joserra Senperena**k eta beste musikari batzuek parte hartu dute Amateuren lehen lan honetan.

Honako hauek izango ditu lagun Donostiako hirukoteak: **Fernando Neira** baxuan, **Paul San Martín** Hammond organoan, eta **Joseba Irazoki** gitarran.

Amateur es la nueva aventura musical de **Mikel Aguirre**, **Chelis Lanzagorta** e **Iñaki de Luca**s, todos ellos ex miembros del desaparecido grupo La Buena Vida.

Partiendo de los planteamientos de su anterior formación - composiciones refinadas con aires *vintage*, guiños a los clásicos, arreglos orquestales y textos en castellano -, Amateur aporta nuevos matices y atmósferas a las canciones que forman parte de *Debut!*. **Diego Vasallo**, **Irantzu Valencia**, **Jaime Stinus** o **Joserra Senperena**, entre otros, han participado en este primer trabajo de Amateur.

Acompañarán al trío donostiarra: **Fernando Neira** al bajo, **Paul San Martín** al órgano Hammond y **Joseba Irazoki** a la guitarra.

Abendua **29** Diciembre

Mikel Erentxun
El hombre sin sombra

20:00 **22 €**

Corazones bere azken lanak izandako arrakasta handiaren ostean -*Latin Grammy* sarirako proposatu zuten, Rock *album* onenaren sailean-, Mikel Erentxunek bere lan berria aurkezten digu, *El hombre sin sombra*.

Bere lagun Paco Locorekin batera ekoitzi eta grabatu du, El Puerto De Santa Maríako (Cádiz) haren grabazio-estudioan. Soinu-nahasteak John Agnellok egin ditu, eta mastering-a, berriz, Greg Calbik, Sterling Sound-en (NY). Izan ere, *Corazonesen* parte hartu zuen talde tekniko bera izan du bidelagun oraingoan.

El hombre sin sombra 8 pistako sistema analogikoan grabatu da; 12 abesti ditu, eta **Maika Makovski**ren kolaborazioa izan du.

Mikel Erentxunek dio: "*El hombre sin sombra* nire gustu musikalen eta nire sentimenduen emaitza fidela da. Disko honek maitasunaz eta haren ondorioez hitz egiten du".

Tras el gran éxito de *Corazones,* trabajo con el que fue nominado al *Latín Grammy* como mejor *álbum* en 2015, Mikel presenta *El hombre sin sombra*. Grabado, producido e interpretado a medias con Paco Loco, en sus estudios de El Puerto De Santa Maria, Cádiz.

Las mezclas a cargo de John Agnello, y el mastering es de Greg Calbi en Sterling Sound, NY. Es decir, el mismo equipo técnico que su anterior trabajo, *Corazones*.

El hombre sin sombra, grabado en sistema 8 pistas, analógico, cuenta con la colaboración de Maika Makovski y contiene 12 canciones.

Mikel Erentxun: "*El hombre sin sombra* es un retrato fiel de mis gustos musicales y sentimientos personales. Es un disco que habla del amor y sus consecuencias".

Abendua **30** Diciembre

Sky Beats Piano Tapes Feat. Paul San Martín

Club, 20:00 **8 €**

Sky Beats Piano Tapes Feat. Paul San Martín izena hartuta, Sky Beats donostiar bandak bat egin du Paul San Martín piano-jotzailearekin bere bi albumetako kantak modu berezi batez interpretatzeko, eta bandak 2018an argitara emango dituen konposizio berrietako batzuk jotzeko.

Boskote gisa, donostiar bandak askatasun handiagoa izango du esperimentatzeko eta kantak janzteko, bai eta beste arlo batzuetara eramateko ere. Entzule-kopurua mugatua izango da zuzeneko barnekoi honetarako.

Bajo el nombre de Sky Beats Piano Tapes Feat. Paul San Martín, la banda donostiarra Sky Beats une sus fuerzas junto al pianista Paul San Martín para interpretar las canciones de sus dos álbumes de manera especial y presentar algunas de sus nuevas composiciones que la banda editará en el próximo 2018.

En formato de quinteto, la banda donostiarra tendrá más libertad para experimentar y decorar los temas, así como para llevarlos a otro terreno. Directo íntimo y de aforo limitado.

Urtarrila **14** Enero

Artxipielagoa

Sopranoa:
Ainhoa Garmendia
Bertsolaria:
Andoni Egaña
Biolontxeloa, akordeoia:
Pello Ramírez
Txistua:
Garikoitz Mendizabal
Pianoa:
German Ormazabal

19:00 18 €

Zenbait lagunek, ibilbide luzea egindako profesionalak denak ere Euskal Herrian zenbait kultura-disziplinatan, beren gaitasun profesionalaren jakitun, batu egin dituzte ahaleginak, nahiak eta ametsak, eta, bakoitza uharte bat balitz bezala, zeinek bere arlotik, musika-artxipelago bat osatu dute. Hain zuzen ere, horregatik jarri diote izen hori ekinbide honi.

Artxipielagoa emankizun euskalduna, sakona eta profesionala da agertoki gainean, eta aitzindaria, berritzailea eta parte-hartzailea euskal kulturaren munduan.

Conscientes de la capacidad profesional de cada uno, varios amigos y profesionales de dilatada trayectoria en distintas disciplinas culturales de Euskal Herria, han aunado esfuerzos, deseos y sueños para, con la aportación de cada uno de ellos, cual isla musical, confomar un archipiélago musical que da nombre y ser a la iniciativa.
Artxipielagoa es un espectáculo tan euskaldun, profundo y profesional encima del escenario como pionero, innovador y participativo en el mundo cultural vasco.

Zinema

Urria **28** Octubre - Azaroa **03** Noviembre

Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren 28. Astea
28ª Semana de Cine Fantástico y de Terror

Badator beste behin ere, udazkenez, Astea, une honetako fantasia eta beldurrezko film garrantzitsuenekin. Film luzeak eta laburrak, oraingo eta betidaniko izenburuak, zientzia-fikzioa eta animazioa, terrore basatiena eta urteko film irrikatuenak. Victoria Eugenia Antzokiak *Emakume zinegileen erasoa* zikloa, familientzako emanaldi berezi bat eta film laburren maratoia hartuko ditu besteak beste. Antzoki Zaharreko Sail Ofizialak, erakusketek eta hainbat jarduera paralelok osatzen dute fantasiazko eta beldurrezko zinemaren urteroko festa honen egitaraua.

La Semana vuelve en otoño con las películas de género fantástico y de terror más importantes del año. Largometrajes y cortos, títulos de hoy y de siempre, ciencia ficción y animación. El Teatro Victoria Eugenia acogerá, entre otras sesiones, el ciclo titulado *El ataque de las mujeres cineastas*, un pase familiar y un maratón de cortometrajes. La Sección Oficial del Teatro Principal, exposiciones y diversas actividades paralelas completan la programación de esta gran fiesta anual.

Deskontuak
Descuentos

⊖ %10

%10 Donostia Kulturak antolatutako ikuskizun guztietan
10% En todos los espectáculos organizados por Donostia Kultura

Donostia Kultura Bazkideak Socios Donostia Kultura*
Langabetuak Personas en paro
30 urtetik beherakoak Menores de 30 años
Pentsiodunak eta 65 urtetik gorakoak Pensionistas y mayores de 65 años

Deskontua leihatilan egingo da soilik eta ikuskizun bakoitzeko sarrera bakar bati egingo zaio.

Donostia Kulturako bazkideek, **www.donostiakultura.eus/sarrerak** webgunean erosiz gero, bi sarreratan lortu ahal izango dute deskontua, horretarako NAN zenbakia eta bazkide-pasahitza erabilita.

Los descuentos se aplican en una sola entrada por espectáculo y sólo en taquilla.

Las/os socias y socios de Donostia Kultura que compren sus entradas en **www.donostiakultura.eus/sarrerak** obtendrán el descuento en dos entradas. Para ello, deberán introducir su número de DNI y contraseña de socio/a.

Ordu Gaztea

30 urtetik beherakoek sarrerak 3 euroan erosteko eskaintza Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean, emanaldia hasi aurreko ordu erdian.

Entradas a 3 euros para menores de 30 años en el Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal, media hora antes del inicio del espectáculo.

Leihatilan bakarrik Sólo en taquilla

Deskontuak eta eskaintzak ez dira bateragarriak.
Los descuentos y ofertas no son acumulables.

+ Info:
www.donostiakultura.eus/sarrerak

Sarrera salmenta
Venta de entradas

Victoria Eugeniako leihatila
Taquilla del Victoria Eugenia

Argentinako Errepublika / Rep. Argentina, 2
20004 Donostia / San Sebastián
Tel. 943 481 818
11:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00

Antzoki Zaharreko leihatila
Taquilla del Teatro Principal

Kale Nagusia / Calle Mayor, 1 - 20003
Donostia / San Sebastián
Tel. 943 481 970
11:30 –13:30 / 17:00 –20:00

SARRERAK
ENTRADAS

Guneak
Zonas



AGERTOKIA ESCENARIO

1. Gunea:
Beheko Jarlekuak/Platea/Palkoa eta Balkoiko aurrealdea
Zona 1:
Patio de butacas / Platea / Palco y / Delantera de Balcón

2. Gunea:
Balkoia eta Mailadiko aurrealdea
Zona 2: Balcón y 1ª Delantera de Anfiteatro

3. Gunea: Mailadia
Zona 3: Anfiteatro

MUSIKA & ARTE ESZENIKOAK

MÚSICA & ARTES ESCÉNICAS

KatapultaTour
Gipuzkoa

2017

GIPUZKOAN BERTAKO ARTISTA SORTUBERRIEKIN 62 EMANALDIEN ZIRKUITOA

CIRCUITO DE 62 ACTUACIONES EN GIPUZKOA CON ARTISTAS LOCALES EMERGENTES

Beñat Igerabide, Buffalo, Grande Days, Trini Fox, Amor de Tokyo, Ane Leux, Charlie & The Colours, Luma, Perlak, Amagoia Lauzirika, Dosekilibrados, Sergio Arrospide, Amaia Arriaran & Nerea Ariznabarreta.

eu.katapulta.org/katapulta-tour-gipuzkoa-artistak/

gm! gaztemaniak! · KATAPULTA PLATAFORMA · BW · donostia kultura · kutxa kultur · Gipuzkoako Foru Aldundia · KULTURA

Diseinua: www.tga.cc

5.000 ale / ejemplares - 0,92 € ale bakoitza / unidad (BEZ barne / IVA incluido)

VICTORIA EUGENIA

Antzokia

www.victoriaeugenia.eus